

**FEVAS**



**Plena  
inclusión**

Euskadi

**2019ko  
MEMORIA**



# FEVAS



## 2019ko MEMORIA

**DOKUMENTU HONETAN, LABUR AZALTZEN DA FEVAS  
PLENA INCLUSIÓN EUSKADIK 2019AN ZER LAN EGIN  
DUEN ADIMEN EDO GARAPEN URRITASUNA DUTEN  
PERTSONEN INKLUSIO SOZIAL, ERREAL ETA EFEKTIBOA  
LORTZEKO HELBURUZ. AURREKO URTEETAN BEZALAXE,  
ZEHATZ-MEHATZ JASO DITUGU EGINIKO JARDUERAK,  
HIRU LAN-ARDATZ BEREIZIZ: ADIMEN URRITASUNA  
DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEN SUSTAPENA  
ETA DEFENTSA; ERAKUNDEEN GARAPENA; ETA  
FUNTZIONAMENDUA ETA INGURUNEAN IZAN DUGUN  
PARTE-HARTZEA.**

Laguntzaileak:





# 00 | AURKIBIDEA


## Nor gara? Zer egin dugu?

01	<b>ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEN SUSTAPENA ETA DEFENTSA</b>	
	Eragin politikoa	07
	Eragin soziala	08
	Adimen urritasuna duten pertsonen ahalduntzea eta parte-hartzea	12
02	<b>ANTOLAKUNTZA GARAPENA</b>	
	Pertsonetan zentratutako politika	15
	Erabateko inklusiorako Ereduen Garapena: Kalitatea eta Gizarte Erantzukizuna	17
	Kide diren erakundeenganako laguntza	18
03	<b>PARTAIDETZA INGURUNEAN</b>	
	Partaidetza hirugarren sektoreko sareetan	20
	Presentzia ingurunean	23



# Nor gara?

FEVAS Plena Inclusión Euskadi irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundea da, eta, 1980az geroztik, adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak sustatzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen eta haien familiei zerbitzuak ematen dizkieten familia elkarteak biltzen ditu. 2014an gizarte-intereseko erakunde izendatu zuten.



**GURE XEDEA ADIMEN EDO GARAPEN URRITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ETA HAIEN FAMILIENTZAKO AUKERAK ETA BABESAK HOBETZEA DA, KONPROMISO ETIKOA OINARRI HARTUTA. HORREZ GAIN, GIZARTE INKLUSIBO, BIDEZKO ETA SOLIDARIOAGO BAT LORTU NAHI DUGU, PERTSONA GUZTIEK BEREN BIZI-PROIEKTUAK GARATU AHAL IZAN DITZATEN.**

## Hauek osatzen dute FEVAS Plena inclusión Euskadi:

### ARABA



### BIZKAIA



### GIPUZKOA





## ..... Zuzendaritza Batzordea .....

*Hugo Baroja Fernández*, presidentea (Gorabide)  
*José Antonio Idoeta Madariaga*, presidenteordea (Atzegi)  
*Elisa Carmona Maldonado*, idazkaria (Aspace Gipuzkoa)  
*José Luis Pastor Vega*, diruzaina (Futubide)  
*José Hilario Castillo*, batzordekidea (Aspace Bizkaia)  
*José Ramón Esparza Goicoechea*, batzordekidea (Gaude)  
*Juan Ribera Garbayo*, batzordekidea (Fundación Goyeneche de San Sebastian)  
*Juan Félix Palacios Santa María*, batzordekidea (Gautena)  
*Mikel Pulgarín Romero*, batzordekidea (Apnabi-Autismo Bizkaia)  
*Juan María Rodríguez Ortiz de Zárate*, batzordekidea (Apdema)

## ..... Organigrama .....




## ..... Batzorde teknikoak .....

Autokudeaketa, Eguneko Arreta, Kalitate, Hezkuntza, Familia, Tutoretza-fundazio, Aisialdi, Etxebizitza, eta Boluntarioritza taldeentzako laguntza.



# Zer egin dugu?

01




ADIMEN URRITASUNA DUTEN  
PERTSONEN ESKUBIDEEN SUSTAPENA  
ETA DEFENTSA





## ERAGIN POLITIKOA

### ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONENGAN ETA HAIEN FAMILIENGAN ERAGINA DUTEN POLITIKEN, LEGEEN ETA ESTRATEGIEN JARRAIPENA



### PARTAIDETZA ERAKUNDE-FOROETAN

Adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak defendatzen ditugu hainbat erakundetan:





## ERAGIN SOZIALA

### JARDUNALDIAK

**Boluntariotzaren IV. Topaketa Autonomikoa**  
**“Ba aldakigu taldean lan egiten?”**  
 Bilbon, apirilaren 6an / 55 partaide

Jose Miguel Almansak (boluntariotzaren kudeaketan aditua) dinamizatutako ekitaldi horren helburu nagusia lantaldeetako harreman ona errazten duten alderdietan sakontzea izan zen. Bertan, 8 erakundek boluntariotzako jardunbide egokiak aurkeztu zituzten.

**“Hezkuntza inklusiboa. Egin bat erronkarekin”**  
 Bilbon, azaroaren 7an / 110 partaide

Jardunaldi horretan, hezkuntza-komunitateak hausnarketak eta esperientziak partekatzeko aukera izan zuen, ume guztien aukera-berdintasunean aurrera egin ahal izateko.

#### Hizlariak:

Inés de Araoz, Plena inclusión

“Kultura inklusiborantz” mahai-ingurua: Eguzkiñe Etxabe, APNABI-Autismo Bizkaia eta FEVAS; Lorea Aretxaga, Hezkuntza Berrikuntza Bizkaia; Ana Luisa López, UPV-EHU; Arantxa Etxebarria, Leioako San Bartolome Ikastetxea; Victoria Hernandez, APNABI-Autismo Bizkaia.

“Hezkuntzaren inklusioari buruzko gure iritzia” mahai-ingurua: Marian Murua, Aitor Fernandez, Gabriela Tena.





## “Inklusioa eraiten”

Donostian, abenduaren 3an  
100 partaide

Urritasunaren Nazioarteko Egunaren esparruan, FEVASek aitortzen du elkarte-mugimenduak eta adimen urritasuna duten pertsonen berek zeregin erabakigarria izan dutela gizarte inklusiboagoa eraikitzeko.

### Hizlariak:

Yolanda Fillat, Gizarte aholkularia; Mitxel Lakuntza, Atzegi; Esther Larrañaga, Aspace Gipuzkoa; Jose Ángel Mendiluce, Donostiako Goyeneche Fundazioa; Amaia Lopetegi, Gautena; Txaro Rodrigo, Gipuzkoako Foru Aldundia

Aurkeztutako jardunbide onak:

*Nik ere posible egiten dut aldaketa*, Gaude.

*Saskigintza ikastaroak eskolan: sentsibilizatu eta gure balioa erakutsi genuen*, Aspace Gipuzkoa.

*Auto-kudeatzaile taldeen 20 urte*, Apdema Aniztasuna eta gaurkotasuna Onda Vascan, Donostiako Goyeneche Fundazioa.

*Enplegu publikoa adimen urritasuna duten pertsonentzat*, Gipuzkoako Foru Aldundia.

*Korrikan hartzen dugu parte*, Aspace Bizkaia.

*Antzerkia atsegin dugu*, Gautena.

*Pertsona irisgarriak*, Gorabide.

*Gure txanda da kanpaina*, Atzegi.



**SEMBRAMOS INCLUSIÓN  
INKLUSIOA EREITEN**

3 de diciembre  
San Sebastián  
Kursaal- Sala 1

**FEVAS**  
Plena  
inclusión  
Euskadi

Abenduak 3  
Donostia  
Kursaal- 1. Aretoa



## ARGITALPENAK

**Hezkuntzako "In" aldizkariaren 16. zenbakia**  
Hezkuntza inklusioaren  
erronkari buruzko monografia.



**FEVAS Monografiak bildumako 5. zenbakia:**  
"Mi voto cuenta-Nire botoak balio du"




**"Bat egin erronkarekin. Konfidentziasuna eskolan"**

ONLINE  
BERTSIOAK  
WWW.FEVAS.  
ORG HELBIDEAN  
DAUDE ESKURA



## ONLINE KOMUNIKAZIOA





**BESTE EKINTZA BATZUK****“Herriak eta hiriak pertsona guztientzat diseinatzeko”  
Jardunaldian parte hartzea****Gasteiz, apirilaren 11n**

ONCE Fundazioak antolatu zuen, ACS Fundazioarekin, Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluarekin eta Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoarekin lankidetzan. FEVASek “Adimen urritasuna duten pertsonengan zentratutako begirada” izeneko aurkezpenarekin hartu zuen parte.

**“Hezkuntza-arloko eraldaketari”  
buruzko lan-saioa****Bilbon, maiatzaren 20an**

FEVASeko eta Gaztela eta Leongo Plena Inklusióneko hezkuntzako profesionalek eta erakunde elkartuek hausnarketa eta jardunbideak partekatu zituzten.

**Partaidetza “Justizia eta Urritasuna” jardunaldian****Bilbon, azaroaren 28an**

Bizkaiko Abokatuen Elkargoak antolatuta. Eremu juridikoan adimen urritasuna duten pertsonen dagokienez kontuan hartu beharreko estrategiak eta baliabideak azaldu zituen FEVASek.

**Lankidetzak BilboBusekin**

Bi ildotan egin da lan: urritasuna duten pertsonak kontratatzea eta Bilboko garraio publikoak duen irisgarritasun kognitiboa ebaluatzea.

**Lankidetzak Herri Administrazioen  
Euskal Erakundearekin (IVAP)**

Enplegu Publiko Eskaintzen barruan 1. Hizkuntz Eskakizuna eskuratzeko egokitzapenak sustatzeko xedez.





# ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA

## Nire botoak balio du

Bilbon, maiatzaren 17an

Parte hartzeko prozesu irekia, adimen urritasuna duten Bizkaiko erakundeetako pertsoneri zuzendua, Europako Parlamenturako, Udaletarako eta Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskundera begira egiten dituzten aldarrikapenekin adierazpen bat egiteko. Prozesu demokratiko hori maiatzaren 17an egindako ekitaldiarekin amaitu zen. Ekitaldi horretan, urritasuna duten pertsonen bost ordezkari euren proposamenak aurkeztu zizkieten EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, Podemos-Ahal Dugu eta PP taldeetako ordezkariak.

340  
partaide





## “Emakumeak eta gizonak berdintasunean” Auto-kudeatzaileen XV. Topaketa Autonomikoa


Erromo, azaroak 16, 90 partaide

Atzegiko, Apdemako, Gorabideko eta Gaudeko auto-kudeaketa taldeetako kide diren eta adimen urritasuna duten pertsonak hartu zuten parte ekitaldi horretan. Gaude izan zen izan zen Topaketaren anfitrioi.

## Kultur jarduerak

389 partaide

- Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren (EOS) “Isiltasunaren haitzuloa” ikuskizunera joatea.  
*Donostia, urtarrilaren 17an*
- EOSek antolatutako eta urritasuna duten pertsonen zuzendutako bi musika-tailer.  
*Bilbon, maiatzaren 8an, eta Donostian, maiatzaren 10ean*
- “Vida Perfecta” telesailaren estreinaldira joatea (Donostiako Zinemaldia).  
*Donostia, irailaren 22a*
- “Mía y el león blanco” filmean parte hartzea, Yelmo Zinema-aretoek gonbidatuta.  
*Leioa, urriaren 9a.*






# Zer egin dugu?

02



**ANTOLAKUNTZA ERAKUNDE  
GARAPENA**





# PERTSONENGAN ZENTRATUTAKO POLITIKAK

## PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK

### IKASTAROA

**Ikastaroa: Sexualitate Arduratsuari buruzko Plana adimen urritasuna duten pertsonentzat.**

Bilbon, otsailaren 14an

Irakaslea: Belén Gutiérrez (PROTEDIS-Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala)

### IKASTAROA

**Online ikastaroa: Jokabide-Laguntza Positiboa.**

Urriaren 21etik abenduaren 1era

Tutoreak: Agustin Illera eta Imanol Rodríguez (Gautena)

### IKASTAROA

**Ikastaroa: Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen laguntza integrala emateko eredia.**

Donostia, apirilaren 2an eta 3an

Irakaslea: Agustin Illera (Gautena)

### IKASTAROA

**Ikastaroa: Adimen urritasunaren arloan genero-ikuspegitik lan egiteko tresnak.**

Bilbon, abenduaren 12an eta 13an

Irakaslea: Clara Ines Guilló Girard (Madrilgo Unibertsitate Konplutensea).

### IKASTAROA

**Ikastaroa: Duintasun-espazioak eraikitzen. Laguntzaren artisautza.**

Bilbo, ekainaren 5ean eta 6an

Irakasleak: Tatiana Urien (Gaude) eta Jose Miguel Fernández Dols (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa).



102  
partaide



## ZUZENDARITZA BATZORDEETAKO KIDEENTZAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK

**Zahartzen ari den eta urritasun intelektuala duen pertsonari laguntzea: ikuspegi etikoa**

Bilbon, martxoaren 28an

Dinamizatzailea: Xabier Etxeberria (Etika Katedradun Emeritua Deustuko Unibertsitatean)

**New Yorkeko Konbentzioa: elkarte-mugimenduaren garrantzia lege-erreformetan eta etorkizuneko erronketan.**

Donostian, azaroaren 21ean

Dinamizatzaileak: Rafa Armesto (abokatua eta Plena Inklusióneko Juristen Sareko kidea) eta Ana Acarregui (Gaude)

**Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren aintzatespen juridikoa eta sustapena**

Gasteiz, maiatzaren 28an

Dinamizatzailea: Mikel Barturen (Sareen Sarea)

58  
partaide

## ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK

**IKASTAROA****Ikastaroa: Zu ere zure elkartearen irudia zara. Ondo komunikatzeko aholkuak.**

Bilbon, urriaren 21ean

Hezitzailea: Eva M<sup>a</sup> Martín de Pedro (Gaztela eta Leongo Plena inclusión)6  
partaide



# ERABATEKO INKLUSIORAKO EREDUEN GARAPENA: KALITATEA ETA GIZARTE- ERANTZUKUZINA

## KALITATEA

**“Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen eskubideen konkista NBERen Konbentzioaren esparrutik: lorpenak eta erronkak” mintegia.**

Bilbon, azaroaren 7an

Dinamizatzailea: Inés de Araoz (Plena Inclusión)

16  
partaide

**FEVASen Hobetzeko Plana, hortik lantalde hauek eratorri dira:**

- **Partaidetza osoa. 8 erakunde**
- **Balioen Hedapena, Nines Lópezekin (Plena inclusión) lankidetzan. 6 erakunde**
- **Familien Gogobetetzea ebaluatzea. 8 erakunde**
- **Adimen eta Garapen Urritasuna duten pertsonen Gogobetetzea ebaluatzea 9 erakunde**
- **Pertsona Koordinatuan Oinarritutako Plangintza. 9 erakunde**

• **Adimen urritasuna duten Pertsonen aurkako Tratu Txarrak Prebenitzeko eta horiei Aurre Egiteko Plana, Belén Gutiérrezekin (PROTEDIS-UNED) lankidetzan. 8 erakunde**

• **Sexualitate arduratsuari buruzko plana adimen urritasuna duten pertsonen arretarako zentroetan, Belén Gutiérrezekin. (PROTEDIS-UNED). 5 erakunde**

91  
partaide

## GIZARTE-ERANTZUKUZINA

Elkarte-jarduerarekiko zeharkako arloa, 4 lan-ardatz dituena:

GOBERNANTZA

GIZA  
ESKUBIDEAK

DISEINU  
UNIBERTSALA.

PARTAIDETZA  
AKTIBOA



# KIDE DIREN ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA

## KOMUNIKAZIOA

Erakundeen partaidetza koordinatzea Herri Irratiaren "Posible da" programan.

Erakundeek bultzatutako kanpainak eta ekitaldiak ezagutaraztea; horien artean, Oroitzapen Egunak eta kirol-lehiaketak nabarmentzen dira.

VOCES buletin digitalerako eta Plena inclusiónen Planeta Fácil webgunerako albisteak.

Dokumentuak irakurketa Errazean idazten laguntzea.



## ONCE FUNDAZIOAREN ESKUALDEKO AZPIEGITURA PLANA

### 12 proiektu

Gehienak ekipamendurako, egokitzapenerako eta zentroak hobetzeko.


## IMSERSOREN OPORRETAKO PROGRAMA - PLENA INCLUSIÓN ESPAÑA

Adimen edo garapen urritasuna duten 185 pertsona.  
58 begirale.




# Zer egin dugu?

03



**PARTAIDETZA  
INGURUNEAN**





# PARTAIDETZA HIRUGARREN SEKTOREKO SAREETAN

## PLENA INCLUSIÓN

FEVAS Plena Inclusion Euskadi hauen parte da:

ZUZENDARITZA BATZORDEA

GERENTE-TALDEA

IRISGARRITASUN KOGNITIBOKO SAREA

FAMILIEI LAGUNTZEKO SAREA

KALITATE SAREA

KOMUNIKAZIO SAREA

JURISTEN SAREA

FAMILIEN GARAPEN SEKTORIALERAKO UNITATEA

AISIALDIKO GARAPEN SEKTORIALEKO UNITATEA

GIZARTE ERANTZUKIZUNEN TALDEA

FAMILIEN ESKUBIDEEN BATZORDEA

FAMILIAN ZENTRATUTAKO IKUSPEGIA BATZORDEA

## PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA

- “Nire Etxea”-ren III. Mintegia.  
Bartzelona, maiatzaren 7an eta 8an
- FRIDA.  
Pull&Bear enpresarekin lankidetzan, Euskadin adimen urritasuna duten bi pertsona kontratatzea ekarri du.

## PARTAIDETZA JARDUERETAN

- Adimen urritasun duten pertsonak justiziara heltzen laguntzeko prestakuntza-ikastaroa.  
Madrilen, martxoak 5-7
- Hezkuntza Inklusiboari buruzko barne-mintegia, FEVASek “Euskal Hezkuntza Sistemaren Gakoak” aurkeztu zuen.  
Madrilen, martxoaren 11n
- Estatuko etika-topaketa.  
Oviedon, maiatzaren 30ean eta 31n





- Inclusion Europe erakundeak antolatutako “Europe in Action” topaketa, “Pertsona orok ibaiaren ondoan bizitzeko eskubidea du” leloarekin, NBEren Konbentzioaren 19. artikuluari buruz hausnartzeko.  
[Vilnan \(Lituania\), ekainaren 5etik 7ra](#)
- Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen neba-arreben eta koinatu-koinaten estatuko IV. Topaketa.  
[Salamanca, ekainaren 8an eta 9an](#)
- “Familiako Ahotsak entzuten” jardunaldia, FEVASek eta Plena Inclusión Españak antolatua.  
[Bilbon, ekainaren 13an](#)
- Plena inclusionen Batzar Nagusia, FEVASek eta Plena inclusiónek antolatuta.  
[Bilbon, ekainaren 14an](#)
- “Komunitate inklusiboak” mintegia, Beth Mount adituak dinamizatua, Prácticas Admirables-en 2. Topaketaren esparruan.  
[Zaragozan, irailaren 25ean](#)
- Prácticas Admirables-en 2. Topaketa. Bertan, FEVASeko kalitate-arduradunak Erabateko Kalitate eredu berria aurkeztu zuen. Gainera, “Konfidentzialtasuna hezkuntzaren esparruan” izenburuko FEVASeko Gidak Jardunbide Onaren aintzatespena jaso zuen, Topaketako materialetan zabalduz.  
[Zaragozan, irailaren 26an eta 27an](#)
- “Gizarte-babeseko sistema baterantz. Familien beharrak antzemateko eta ezagutzeko analisiak eta hobekuntza-proposamenak” tailerra, Fresno Consulting-ek dinamizatuta.  
[Bilbon, azaroaren 13an](#)
- “Pertsonan zentratutako teknologia” tailerra, Steve Barnard adituak dinamizatua.  
[Madrilen, azaroaren 14an eta 15ean](#)
- Hezkuntza inklusiboko estatuko Topaketa, Plena inclusionek eta Gaztela-Mantxako Plena inclusionek antolatua.  
[Toledon, azaroaren 29an eta 30ean](#)

## PARTAIDETZA SENTSIBILIZAZIO-KANPAINETAN

- Nire botoak balio du.
- Nazioarteko Egunak ospatzearekin lotutako kanpainak.



## AEDIS (URRITASUNERAKO ENPRESA ELKARTEA)

FEVASek Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du 2018tik.

## EDEKA- URRITASUNA DUTEN PERTSONEN ORDEZKARIEN EUSKAL BATZORDEA

- Urritasunari eragiten dioten politika publikoen jarraipena.
- CERMIren (Urritasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordea) jarraipena egitea eta ekintzetan parte hartzea.
- Emakunderekin lankidetzan, “Indarkeria matxistaren biktima diren eta urritasuna duten emakumeentzako arretaren erronkak” jardunaldian.  
[Bilbon, ekainaren 14an](#)
- “Partaidetza politikoa eta urritasuna, bermatu behar den eskubidea” jardunaldia.  
[Bilbon, abenduaren 13an](#)



## SAREEN SAREA

- Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko lege-proposamena.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen Dekretuaren garapena.
- Migraziorako Euskal Itun Soziala.
- Euskadi Gobernu Irekirako Aliantza (OGP Euskadi 2018-2021).
- Lankidetzaz Bizkaiko Hirugarren Sektorerekin, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialerako erakundeek aldaketa soziokulturaleko prozesuetan egiten duten ekarpenari buruzko ikerketan.
- Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna.  
[Gasteizen, maiatzaren 13an](#)





## PRESENTZIA INGURUNEAN

FEVASek Nazioarteko Egunak ospatzearekin, proiektuak aurkeztearekin, jardunaldiekin, harrera ofizialekin, topaketekin... erlazionatutako era askotako 20 ekitalditan parte hartu du 2019an.

- FEVASeko kide diren erakundeek antolatutakoak (7 ekitaldi)
- Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakundeek antolatutakoak (4 ekitaldi)
- Herri Administrazioak antolatutakoak: Legebiltzarrak, Lehendakaritzak, Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek (7 ekitaldi)
- Beste erakunde batzuek antolatutakoak (2 ekitaldi)





**FEVAS**



**Plena  
inclusión**  
Euskadi

[www.fevas.org](http://www.fevas.org)